

APATAKO JAIK / 18



BERRIZKO JAIK / 21



LEKUAN LEKUKO

# anboto

**MOTOR GEHIGARRIA / 11**

## Ahalduntzea, baita errepedean ere

**MILA Arana**

Mila Arana axpetarrak 82 urte ditu eta egunero-egunero gidatzen du autoa errekaduak egiteko. Behar-beharrezkoa duela dio.

**ENERITZ Urzuriaga**

Eneritz Urzuriaga Durangon bizi da eta rallyetako kopilotua da. Motor munduan geroago eta emakume gehiago dagoela dio / 13-17

MENDI LASTERKETAK

**300 korrikalari  
zapatuan Amaraune  
mendi lasterketan / 7**



KULTUR EKITALDIK

**Uda musika eta  
kultur eskaintza  
anitzagaz beterik  
ailegatuko da  
Durangaldera**

Haizetarak zabalduko du jaialdien egutegia, asteburu honetan. Uztailean Musikaire egingo da, eta Uda Giro irailera arte egingo da martxan / 2-8



Olaia Inziarte kantariaren kontzertua 2024ko Musikairen.

AZPIEGITURAK

**EAJk belodromoa  
berriztea eta estaltzea  
eskatu du hainbat  
txirrindulariren  
babesagaz / 9**

EUSKARA

**Egun osoko jaia  
Otxandion, euskaraz  
irakasten hasi  
zirenetik 50 urte joan  
direla ospatzeko / 8**

## Uda Giro zikloaren edizio berria eskualdeko sortzaileen erakusleihen ere izango da

Uda Giro ekainaren 23an hasiko da, Zirko Txoskoaren 'Oh pera!' ikuskizunagaz

**Aritz Maldonado** DURANGO

Uda Giro kultur zikloaren edizio berriak Durangaldeko zapore berezia izango du; izan ere, eskualdeko hainbat sortzailek egingo dituzte emanaldiak bertan. "Maila handia dago Durangaldean, hainbat artista dago maila profesionalean lan egiten, eta aurten hori ekarri gura izan dugu Uda Girora", azaldu Arantza Arrazola San Agustineko arduradunak. Lehenengo ikuskizuna Zirko Txoskoren *Oh Pera!* izango da, ekainaren 23an. Ekainaren 29an bertso saioa egongo da Tabira

parkean; Gorka Pagonabarraga, Nerea Ibarzabal, Iruñe Basagoiti eta Gorka Lazkano bertsolariek kantatuko dute, eta Ander Eloorriagak ipiniko ditu gaiak. Uztailearen 2an, Beñat Achiary abeslariak eta Alaitz Muro artista durangarrak *Oteizarekin solasean* performancea egingo dute; emanaldi hori Benita Uribarrena parkean izango da. Iñaki Jaio bateria-jotzaile durangarraren *Bootxo Boogies* taldeak *Homenaje a Arriaga* emanaldia egingo du Plateruenero terrazan, uztailearen 9an. "Ohore bat da

Plateruenero plaza batean ikuskizun hau egin ahal izatea. Jazzetik harago doa, inprobisazioa dagoen arren eta sustraia bertan dauden arren", azaldu zuen Jaio aurkezpenean. Musika alboratu barik, Irati Bilbao abeslari durangarrak *Bloom* bigarren diskoa aurkeztuko du ziklo horren barruan; uztailearen 23an izango da hori.

Zinema euskaraz ikusteko aukera ere egongo da: uztailearen 11n, *Kayara*, *Inka gerraria* lana emango dute Tabiran.

### Barsantiren umore zorrotza

Barsanti konpainiak itxiko du zikloa. *Kodizia late night* lan berriaren gaztelaniazko bertsioaren estreinua Aurora Absolo parkean egingo dute, hain zuzen ere. Aurretik, euskarazko bertsioa plazaratuko dute, uda hasteagaz batera. Oraingoan, nagusiagoentzako ikuskizun bat prestatu dute, telebistako *late night* formatuan bailitzan. "Gure lanetan ohikoa den umoreaz gozatu ahal izango du ikusleak, eta, nola ez, testuinguru politiko soziala ere kontuan hartuko dugu", azaldu du konpainiako kide Juanjo Oterok.



Udal ordezkariak eta Stop Bide Indarkeria elkarteko ordezkariak. DURANGOKO UDALA

## Durangok patinete elektrikoaren erabilera seguruan ipiniko du arreta

**A.B. DURANGO**

Durangoko Udalak 'Gidatu buarekin' kontzientziario kanpaina abiatu du Stop Bide Indarkeria elkarteari batera. Arreta berezia ipiniko dute patinete elektrikoaren erabilera, eta gogoratu dute 100etik 1.000 eurora arteko isunak jasotzen direla urtarrilean onartutako Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuen Erabilera araudian.

Joan-etorrietarako ibilgailu guztien artean "gidatze arduratsua" eta "bizikidetzaren harmonia" bultzatzeko ipini dute martxan ekimena, Mugikortasun Segurua bide hezkuntzako programaren barruan. *Arduraz gidatu* lelopean, informazio argia

eta bisuala emango dute. Hala nola pertsona bakarra joan daitekeela patinete elektrikoetan, kaskoa eta elementu islatzaileak nahitaez erabili behar direla, eta galtzadatik edo bidegorritik zirkulatu behar dutela, trafiko seinaleak eta abiadura mugak errespetatuta. Eta debekatuta dagoela entzungailuekin edo mugikorra erabilia zirkulatzeko, espaloietan edo oinezkoentzako guneeetan ibiltzea eta alkoholaren edo drogen eraginpean gidatzea. Nabarmendu dute 16 urtetik beharkeko ezin dutela patinete elektrikoak gidatu; AM/A1 baimena duten 15 urtetik gorakoek, oster, bai. Non aparkatu ere araututa dagoela gaineratu dute.



Durangaldeko sortzaileak eta udal ordezkariak, aurkezpenean.

## Durangoko Udalak 2027an hasi gura ditu Plateruena berritzeko lanak

**E.H. DURANGO**

Durangoko Udalak epe bi maratu ditu Plateruena berritzen hasteko; proiektua urte amaierarako "prest" izatea gura du, eta lanak, aurreikuspenen arabera, "2027aren hasieran" abiatuko dituzte. Alde batetik, aretoa "berreskuratu eta optimizatu" gura dute, haren edukiera ekitaldi mota bakoitzera egokitzeko; bestetik, "espazio osagarriak" atondu gura dituzte "musika sorkuntzarako, aurkezpenetarako eta foroetarako. Halaber, udalak zehaztu du beheko solairuak sukaldea eta taberna izango dituela. Eraberritze-proiektuaren idazketa lehiaketa publikora atera dute, 82.644 euroko aurrekontuagaz.

Enpresa interesdunek ekainaren 19ra arteko epea dute eskaintzak aurkezteko.

### Lanak atzeratuta

2025eko apirillean udalak iragarri zuen berritze lanak urte horretako abenduan hasiko zirela, Durangoko Azoka amaitu eta gero, hain zuzen ere. Baina lanak atzeratu egin dira orduetik. Edozelan ere, udalak eutsi egin dio Plateruena kulturarentzako eta musikarentzako "erreferentziako zentro" bihurtzeko asmoari. Kulturarako azpiegitura "moderno, seguru eta irisgarria" eskaini gura du, "herritarrentzat zein jardueretan parte hartzen duten artistentzat", esan dute.

## Mecanizados Mecarrek beharginak "itotzen" dituela salatzen du LABek

**Ekaitz Herrera** ZALDIBAR

LAB sindikatuak Zaldibarko Mecanizados Mecar enpresaren jarrera salatzen du publikoki, "langileen aurkako indarkeria" darabilelakoan. "Enpresa langileak itotzen dabil, ekoizpen eskakizun handiak eginda", esan du sindikatuak. Eta ekoizpen horiek lortzeko moduen artean, "berbazko presio-metodoak", "metodo fisikoak", "kronometroak" eta "bestelako jardunbide ez-ortodoxoak" zehaztu zituzte.

Lan-giro horren ondorioz langile batek "antsietate krisi larria" izan duela eta enpresak langileari arretarik ez diola eskaini kritikatu du sindika-

tuak. "Enpresak uko egin zion mutuan parte emateari, eta, ondorioz, mediku-arreta jasotzea eragotzi zion langileari", salatu dute. Sindikatuak gaineratu du gertaera "oso larria" dela, eta iragarri du ez duela "langileen aurkako halako jarrearik eta errepresiorik" onartuko. Era berean, LABek langileen osasuna "lehenestea" eskatu dio enpresari, "ikusita beharginen euren osasuna arriskuan ipintzen dutela lanak betetzeko".

Mecanizados Mecar Zaldibarko industrialdean dago, Euskal Herria etorbidearen amaieran. LABen datuen arabera, lantegiak 20 behargin ditu.

## Ilargi argazkilaritza taldeak argazki rallya antolatuko du

**E.H. ZALDIBAR**

Zaldibarko Ilargi argazkilaritza taldeak rally fotografikoa antolatuko du. Ekainaren 28an egingo dute, domekan, herrian bertan. Antolatzaileak liburutegi zaharrean egongo dira, 08:30etik 09:30era, inskripzioak jasotzen. Partaideek sei argazki aurkeztu beharko dituzte lehiaketara. Gai zehatz banari loturiko lau, eta gai libreko bi. Lanak koloretan eta JPG euskarrian aurkeztu beharko dira, 13:30-14:30 artean. Sariak 125, 100 eta 75 eurokoak dira. Herriko sarituak 75 euro eskuratuko ditu, eta gazteen saria lortzen duenak 50 euro. Antolatzaileek iragarri dute parte hartzaileek luntxa izango dutela.

## Durangoko gaztetxeak lehenengo urteurrena ospatuko du zapatuan

Bazkaria, txaranga eta kontzertuak egongo dira. Gazteria bertaratzera eta gaztetxea "bere egitera" deitu dute

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Urtebete joan da Kaletik Gaztetxera dinamikak Montorreta kaleko marmol lantegi zaharra okupatu eta gaztetxea eratu zuenetik. Eta efemeridea ospatzeko, gaztetxeko kideek urteurren jaia egingo dute zapatu honetan. "Proiektua sendotu egin da lehenengo urte honetan", adierazi du Ander Sarriugarte gaztetxeko kideak. "Bai gaztetxea bai asanblada forma eta itxura hartzen joan dira eta horixe ospatzera gatoz", gaineratu du. Gaztetxeko kideek gogorarazi dute egitarau oparoa ondu dutela urte osoan zehar. Horren erakusgarri dira, besteak beste, Palestinaren aldeko eguna, Durangoko Azokako egunetan antolatutako egitarau propioa, inauterietako ekitaldiak zein aldiro-aldiro antolatutako bertso kebabak. Horrez gainera, bestelako aisialdi eskaintza bat bultzatzen dabilzala ere gogorarazi dute: "Adibidez, gaztetxeko arte taldeak bertan du estudioa eta fanzineak lantzen dabilza. Bertso eskolak ere bertan ematen ditu eskolak, eta astean zehar doako borroka klaseak eskaintzen ditugu gaztetxean bertan", azaldu du Sarriugartek. Aurrerant-



Gau giroa gaztetxean. KALETIK GAZTETXERA

tzean ere, bestelako aisialdia bultzatzen jarraituko dutela iragarri dute. Hala ere, gaztetxeko kideen berbetan, proiektuaren egoera "ez da egonkorra". Horregaitik, gaztetxera bertaratzera eta "gaztetxea bere egitera" animatu dituzte gazteak.

Zapatuan kamiseten banaketa tagaz hasiko dute urteurren jaia, 12:30ean. Ondoren, mariano edana, bazkaria, olimpiadak, futbito txapelketako finaka, txaranga eta kontzertuak izango dituzte: Eztanda erromeria eta DJ Xirimiri.

## Igerilekua zabalik astelehenetik aurrera



**M.Z. ATXONDO**

Atxondoko igerileku denboraldia hastear da. Ekainaren 22an zabalduko ditu ateak, astelehenean, eta irailaren 6ra arte egongo da zabalik. Igerilekuko ordutegia honako hau da: astelehenetik domekara 11:00etatik 20:00etara. Igerilekuen prezioari dagokionez, 4 urterako umeei debalde izango dute sarrera, 5 urtetik 17 urterako bitartekoek 4 euro ordainduko dituzte, eta 18 urtetik gorakoek 5 euro.

## OSTALARITZA gida.

Iragarkia ipini gura baduzu, deitu **688 731 402** zenbakira

**XIBERU**  Xiberu Taberna  xiberutaberna



**Zeilia Gallartzagaitia, 9 ZORNOTZA**  
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea egunero eta afariak asteburuero. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.

**GAUARGI**  gauargitaberna



**Dantzari, 4 behea IURRETA**  
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.

**OLAJAUREGI**  Hotel Olajauregi  hotel\_olajauregi\_jatetxea



**Kurutziaga, 52 DURANGO**  
Tel.: 946 200 864

Dastatzeko menua 50€  
Karta / Taldeko menuak.  
Galdetzeko deitu edo webean begiratu.

**IBAIZABAL**



**Ibaizabal taldea, 2B DURANGO**  
Tel.: 946 550 185

Plater konbinatuak, hanburgesak, ogitartekoak eta kazolatxoak.  
Barikuetan pintxopotea!

# UDAKO ARGAZKI LEHIAKETA

2 KATEGORIA 4 SARI

**25**  
anboto

Paul Uribe



Itzi Vazquez



Osai Vazquez



Asier López

**Laster  
informazio  
gehiago**



Xabier Etxeita eta Javier Etxeita aita-semeak, Garaiko plazan. ETXEITA-ORMAETXEA FAMILIA



8 urtegar irten zen lehenengoz plazara.



Javier Etxeita, ezkerrean, Jokin Arregigaz erregelak egiten. ETXEITA-ORMAETXEA FAMILIA

## Javier Etxeita herrikidearen hutsunea igarriko dute aurtengo sanjoanetan Garain

Lehenengo sanjoanak izango dira Etxeita barik. Dantza izan zuen bizi osoko pasio

### Ekaitz Herrera GARAI

Momoiotioko ermitaren inguruak jai giroz beteko dira asteburu honetatik aurrera, sanjoanen harira. Garaitarrek zapatuan hasiko dituzte ospakizunak, 20:30ean, Donien Atxa jasota. Ondoren, herri afaria egingo dute. Domekan meza eta dantza saioa izango dituzte, besteak beste. Azken horri dagokionez, herritarrek hutsune sakona sentituko dute, lehenengo sanjoanak izango direlako hainbeste urtean dantzari eta jai giroaren zati izandako Javier Etxeita barik. Etxeita edo Duñabeiti, Garain

kariñoz ezagutzen zuten moduan, aztarna sentikorra utzita zendu zelako joan zen abenduaren 17an.

Herriko baserri batean jaio zen, familia nekazari batean, eta bost neba-arreben artean gazteena izan zen. Txiki-txikitatik izan zuen dantzarako grina, eta etxeko etartean ikasi zuen Dantzari Dantza osoa, zortzi urtegar, anaia zaharrenak erakutsita. Adin horregaz irten zen plazara, hain zuzen ere, non eta sanjoanetako dantza saioan, orain dela ia 70 urte. Egun hartan aurrekua dantzatu zuen, eta hogei urteko Juanita gaztea

izan zuen fandango dantzako bikotekide. Aurrekua amaituta, Etxeitak harrotasunez egin zion ohiturazko mokorkada.

Urteek aurrera egin ahala, Etxeitak dantzarako grina zabalitzen jarraitu zuen. Durangaldeko aurreku txapelketetan lehiatu zen, eta Iurretan jokaturiko edizio bat irabazi zuen. Garaiko dantza taldera bueltatu zen gero, nagusien artera, eta herririk herri ibili zen dantzari, han-hemenka. Orain pare bat hamarkada, baina, Garain geroago eta dantzari gutxiago zegoela ikusi zuen Etxeitak. Eta joera horregaz kez-

katuta, auziari heltzea erabaki zuen: neskek eta mutilek osaturiko talde misto baten sorrera bultzatu zuen, erabaki berritzailea garai hartarako. Dena dela, talde misto horrek entseguak gogo biziz egin arren, gizonak jarraitu zuten Dantzari Dantza plazan egiten herriko egun handian, Santixau egunean. Emakumeek San Inazio egunean eta Santa Katalinako jaietan dantzatzen jarraitu zuten.

Etxeitak sekula ere ez zuen galdu esperantza emakumeak herriko egun handian Dantzari Dantzari ikusteko. Egun hori gerora ailegatu zen, orain hainbat urte herriko emakume batzuk berarengana joan ziren-eta Dantzari Dantza erakusteko eskatza. Entseguak hasi zituzten, baina ez ziren 2023ko jai nagusietarako prest egon. Eta, azkenean, 2024an ailegatu zen egun seinalatua, zortzi emakume

gaztek Dantzari Dantza egin zutelako Santixau bezperan, herriko plazan, azkenenengo entsegu modura. Momentu hunkigarria izan zen Etxeitarrentzat. Dantzari Dantza amaitu eta gero, emakumeek erregelak egin zituzten, eta dantzariak plazara atera zuten, aurrekulariak eskatuta, jaia fandangoagaz eta arin-arinagaz amaitzeko. Azkenik, txapel morea oparitu zioten. Etxeitak harro hartu zuen oroi-garri hura.

Dantzaria 65 urtegar irten zen plazara azkenengoz, jubiliaioa hartu berrikan, Santa Ana egunez, orain hamabi urte. Hala ere, dantzari egin ez arren, dantzaria izan zen azken egunera arte. Eta garaitarrek ere halantxik gogoratuko dute beti. Baita sanjoan hauetan ere, Momoiotioko ermitaren eta giro herrikoiairen babesean, suaren ondoan, beti dantzari.

## Askotariko ikuskizunekin, kultur astea egingo dute Izurtzan



Finito-Infinito kale ikuskizunaren argazki bat. TROTAMUNDOS

### Joseba Derteano IZURTZA

Ekainaren 20tik 23ra kultur astearen hirugarren aldia egingo dute Izurtzan. Zapatu honetan ekimen bigaz gozatzeko aukera egongo da. Batetik, Korralla sormen guneak gonbita egingo du goizean

dantza egiteko. 11:00etatik 13:00etara Lindy hop tailerra egingo dute plazan. Arratsaldean, 19:30ean, Trotamundos konpainiak *Finito-Infinito* ikuskizuna egingo du plazan. Umorea eta fantasia uzartzaren dituen adin guztietarako

zirkularrean antzeztzen dute.

Bestalde, Eixu elkarteak askotariko postuak batuko dituen artisau azoka antolatu du domekarako. 11:00etan izango da, plazan. Pelma & Luis musika jartzaileek girotuko dute azoka.

### 'Aitatxo' dokumentala

Ekainaren 22an, 18:30ean, *Aitatxo* dokumentala emango dute erabilera anitzeko lokalean. Dokumental honek seme edo alaba bat galdu duten lau aitaren testigantzak biltzen ditu, dolua aitaren ikuspegitik erakutsita.

Ekainaren 23an, 19:00etan, Gabriela Guridi elorriarrak kontzertua emango du Santo Tomas parkean. Ondoren, San Joan sua piztuko dute parkean, Ji-Kunak txalapartarien musikak lagunduta. Jan-edanerako aukera ere egongo da.

**ABONATUA IZATEKO AUKERA**

**ABADIÑOko POLLak atea zabaltzen dizkizu**

**KIROL ETA GASTRONOMIA ELKARTEA**

Informazioa WhatsApp bidez:  
+34 680 940 317

# Okm batzen gaituen distantzia

## ANBOTOKIDE

### EKAINEKO ZOZKETAK



**Uitzama**ren produktu sorta.



**Zelai Hotela** (Zumaia). Talaso saioa eta gosaria barne duen birentzako bonua.



**Xiberu taberna**n (Zornotza) bi gosari bikoitz.



**Mendexa Abentura Park**erako bost sarrera bikoitz.



**Aukan izozkiak.** 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. (Durango)

EGIN ZAITEZ ANBOTOKIDE  
ETA PARTE HARTU  
GURE ZOZKETETAN!



## Nazioarteko hamar talde lehiatuko dira Zornotzako XIX. Haizetara jaialdian

Gaur, barikua, hasiko da Haizetara kale musikaren jaialdi ezaguna, 19:00etan

**Aritz Maldonado ZORNOTZA**  
Ekainero legez, Haizetara nazioarteko kaleko musikaren jaialdiak Zornotzako kaleak musika doinuz beteko ditu. Gaur hasiko da XIX. edizioa, 19:00etan. Aurten nazioarteko hamar talde lehiatuko dira: Pierres&Fils (Frantzia), Seven Seas Orchestra (Italia), Mamabrass (Madril), Super Panela (Frantzia), Fanfarría Taquicardia (Vigo), Forbi Brass Band (Hungaria), Los Justicieros (Madril), Banda Quetzal (Belgika), Les Rogers Brass Band (Frantzia) eta Barna Sabor Trubaca (Bartzelona). Hiru sari lortzeko lehiatuko dira; bandarik onenak 15.000 euroko saria jasoko du, instrumentistarik onenak 1.000 eurokoa, eta publikoaren saria irabazten duenak 4.000 eurokoa. "Taldea bakoitzak lau emaldi egingo ditu udalerriko zenbait gunetan, hainbat estilo

uztartuta: jazz, funka, bertsoak, konposizio originalak, musika elektronikoa, hip hopa...", azaldu du Koldo Bilbao zinegotziak.

Haizetara ekimen errotua dela nabarmendu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea. "Udalak Haizetara ekimenaren aldeko konpromisoa mantentzen du, gure herriarentzat kulturaren,

sormenaren eta bizikidetzaren adierazgarri delako", azaldu du. Lehiakideez gainera, Sugarri, Malatxo, Incansables, Mautitxa, Sama Siku eta Zornotzako banda ere arituko dira kaleak girtzen. Bestalde, ordutegi zehatzak jakiteko, Zornotzako Udalak mugikorretarako aplikazioa garatu du.



The Brass Funkeys, iazko irabazleak.

## Bertso afaria, dantzariak eta musika Goita auzoko San Joan jaietan

**Maialen Zuazubiskar MALLABIA**  
Ekainaren 19tik 24ra bitartean Mallabiko Goita auzoko jaiak ospatuko dituzte, sanjoanak. Barikuan ekingo diete jaiari, 19an, txopoa jasota. 21:30ean bertso afaria egongo da, Sustrai Colinagaz eta Amets Arzallusegaz. Ondoren, Lander eta Mikel trikitilariak girotuko dute afalostea.

Asteburuan zehar ere hainbat ekintza egongo da: patata tortilla txapelketa, Mallabiko Gazte Alai dantza taldearen saioa, trikitilariak eta ardi mozte saioa, besteak beste.

Urtero legez, ekainaren 23an San Joan sua egingo dute, eta San Joan egunean meza, mokadua eta errifaren zozketa egongo dira.



Goita auzoko argazki bat.

## Kamerak Mañariko frontoian, ekintza ez zibikoei erantzuteko

Mañariko Udalak bideozaintza-kamerak ipiniko ditu frontoian. Izan ere, udalak bere webgunean informatu duenez, azken urtean "gertakari ez-zibiko" bat baino gehiago erregistratu dira frontoian eta kalte materialak eragin dituzte. Kamerak "izaera prebentiboa eta disuasorioa" dutela azpimarratu dute. Nabarmendu dute hasieran ez zutela horrelako neurririk hartzeko asmorik, baina erregistratutako gertakarien aurrean eta herritarren segurtasuna bermatzeko beharra ikusita, "beste aukerarik ez dutela ikusi". Udaleko beharginak beharrezko azpiegiturak prestatzen dabilta eta "laster" ipiniko dituzte martxan. Kamera bi instalatuko dituzte: bat frontoien barrualdean, eta bestea eraikinaren kanpoaldean. Udalak espazio publikoak errespetatzera eta herriko ondarea elkarregaz zaintzera dei egin die herritarrei, "instalazio horiek denek erabiltzeko direlako".



Iazko Amaraune lasterketako argazki bat.

## Goi mailako partehartzeagaz, Amaraune mendi lasterketak bosgarren aldia beteko du

Lasterketa luzekoek 09:00etan izango dute irteera, eta lasterketa laburrekoek 09:30ean

M.Z. BERRIZ

Zapatu honetan Durangaldeko Kopako bigarren lasterketa jokatuko da, Berrizen: Amaraune mendi lasterketa. Aurtengoa bosgarren edizioa da eta dortsalak ia agortuta daude. Lasterketa laburrean 150 parte hartzaile izango dira, eta luzean 146. Beraz, lasterketak ia 300 korrikalari batuko ditu. "Aurten ere oso pozik gaude lasterketak izandako harreagaraz. Gainera, oso korrikalari onek eman dute izena eta ezinezkoa da faboritoren baten izena ematea", azaldu dute antolatzaileek.

Ibilbideari dagokionez, proba luzeak 21,5 kilometro eta 1.150 metroko desnibel positiboa du. Korrikalariak 09:00etan irtengo dira Elizondo plazatik, eta, San Kristobal Txikitik, Oizera igo beharko dute. Parte hartzaileek hiru tontor igo beharko dituzte, guztira: Oiz, Sarrimendi eta Gaz-

telumendi. Ondoren, Berriz izango dute helmuga. "Oso lasterketa arina da, korrika asko egitekoa. Hori bai, kontuan izan behar da desnibelik gehiena lehenengo zortzi kilometroetan dagoela, hau da, lehenengo igoeran. Ondorengo jaitiera oso bizkorra da, baina zertxobait gordetzea komeni da, azkenean Sarrimendirako igoera dago eta", esan dute antolatzaileek. Bestalde, lasterketa laburrekoak 09:30ean abiatuko dira. Horiek 12 kilometroko ibilbidea egin beharko dute eta 500 metroko desnibelari egin beharko diote aurre. "Lasterketa laburra sinpleagoa da, Sarrimendira igo eta jaitsi. Beraz, hau oso arin egiteko proba da", gaineratu dute antolatzaileek.

Ibilbideaz gainera, korrikalariak eguraldia ere kontuan hartu beharko dute, bero handia dago iragarrita eta.

### Kopako sailkapena

#### Sugaar Kopa (Emakumezkoak)

- 1 Zutoia Odriozola
- 2 Iزارo Zamalloa
- 3 Oihane Alonso

#### Sugaar Kopa (Gizonezkoak)

- 1 Ander Jauregi
- 2 Iker Echevarria
- 3 Aitor Gonzalez

#### Mari Kopa (Gizonezkoak)

- 1 Irazu Aranburu
- 2 Iñigo Pradera
- 3 Xabat Manzisidor

#### Mari Kopa (Emakumezkoak)

- 1 Maialen Artiach
- 2 Oihane Unzalu
- 3 Olatz Salaberria

## Muntsaratzen alokairuko 84 etxebizitza eraikitzeko proiektua, lizitaziora

**Maialen Zuazubiskar** ABADIÑO

Abadiñoko Udalak jakinarazi duenez, Eusko Jaurlaritzak lizitazioa atera du, 715.500 euroan, Muntsaratzen alokairuko 84 etxebizitza publiko eraikitzeko proiektua idazteko eta obrak zuzentzeko. Alokairuko 84 etxebizitza publikoak Muntsaratzeko Gantza Zelaieta esparruan eraikiko dituzte. Lizitazio horren bitartez, proiektua idazteaz eta ondoren obrak zuzentzeaz arduratuko den talde teknikoa kontratatu ahal izango da. Lizitazioen agiriaren arabera, behin kontratua eslebita 20 asteko epean osatu beharko da proiektuaren idazketa. Udalak azaldu du Visasaren (Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Hiri

Agenda Sailari atxikitako sozietate publikoa) aurreikuspenen arabera etorkizuneko sustapenak 13.000 metro koadro inguruko azalera eraikia izango duela, eta eraikuntza lanek 12,5 milioi euroko aurrekontua. Epe guztiak betetzeko, obrak 2030eko azaroan amaitzea aurreikusten dute.

"Etxebizitza lehentasun nagusietariko bat izan da udalarentzat, eta hainbat neurri bultzatu du etxebizitza eskuratzeko aukera hobetzeko. Alokairuko etxebizitza publikoak funtsezko jarduketa izango dira helburu horretan aurrera egiteko eta udalerrian antzemandako premia nagusietariko bati erantzuteko", nabarmendu du udalak.

## Rocio erromeria zapatuan Abadiñon



M.Z. ABADIÑO

Zapatuan Abadiñon tradizio handiko hitzordua den Rocio jaia ospatuko dute. De Norte a Sur dantza taldeak Astola auzoan antolatzen duen erromeriari 12:15ean emango diote hasiera, txupinazoagaz. Musika, Rocioko ama-birjinaren omenezko meza, jantzi tradizionalak eta herri bazkaria egongo dira. Iluntze partetik aurrera diskofesta izango da, ordu txikiak arte.

# PABILIOIA SALGAI

Iurretan, Mercadona ondoan

# 1.190m<sup>2</sup>

**ZARATE ELEXPE**

ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73  
Mug.: 649 40 26 23  
zarateyexpe.com

## Ruper Ordorika eta Sara Zozaya zuzenean ikusteko aukera Elorrioko Musikairen

Uztailaren 3tik 26ra izango dira jaialdiko ekitaldiak, herriko hiru gunetan

A.M./J.D. ELORRIO

Elorrioko Musikaire zikloaren aurtengo egitaraua aurkeztu dute asteon. Uztailaren 3tik 26ra izango dira ekitaldiak, eta horietan nazioarteko artistak eta Euskal Herrikoak arituko dira euren musika, antzerki eta dantza ikuskizunak eskaintzen. "Jaialdiak kultura kalera ateratzeko eta Elorrio udako kultur erreferente bihurtzeko duen gaitasuna berresten du urterik urte", adierazi du udalak ohar batean.

Emanaldiak Elorrioko hiru gunetan izango dira, 20:00etan: plazan, Lariz Jauregian eta Arriola Antzokian. Eguraldi txarra eginez gero, kanpoko emanaldiak Arriola Antzokira lekualdatuko dituzte.

Porrotx, Marimotots, Pupu eta Lore pailazok emango diote hasiera jaialdiari, uztailaren 3an, *Zerua lapurtu* dute ikuskizunagaz. Biharamunean, Sara Zozayak doinu ilun eta intimistez beteko du Arriola. Bigarren asteburuan, Lariz jauregian izango dira emanaldiak. Euskal Barrok Ensemble taldeak antzinako musika eta folk doinuak uztartuko ditu uztailaren 10ean;



Itxaso Basauri, Julene Lazkano eta Aitor Iriarte aurkezpenean. ELORRIOKO UDALA

Ruper Ordorikak *Lurra ikutu barik* disko berria aurkeztuko du uztailaren 11n, eta Momi Maiga musikari senegaldarrak Afrikako eta Europako tradizioak batuko ditu koral doinuen bitartez uztailaren 12an.

Egitarauko hurrengo hitzordua uztailaren 17an izango da. Egun horretan, Yllanaren umore zoroa eta Primital Brotheren kantak uztartzen dituen emanaldia egongo da. Ekainaren 18an, Chicagoko blues doinuez gozatu ahal izango da plazan, Robbin Kapsalisen

eskutik. Urtero egiten duten legez, dantza garaikidearen ikuskizun sorta egongo da plazan bertaratzen direnen gozagarri. Uztailaren 19an izango da hori. Azkenik, uztailaren 24tik 26ra fusioa izango da protagonista: Antifua Fusion taldeak boleroak eta flamenkoa uztartuko ditu, Ife Ogunjobik afrobeat doinuak, eta Elkano Browning Cream hirukoteak organo doinu psikodelikoak. Musikaireri buruzko informazio guztia *musikaire.eus* webgunean jaso daiteke.

## Euskaraz irakasten hasi zirela 50 urte bete izana ospatuko dute Otxandion

Zapatuan herri bazkaria egingo dute eta urteurrenerako sortutako ikus-entzunezkoa erakutsiko dute, besteak beste

Aitziber Basauri OTXANDIO

Otxandion 50 urte joan dira euskaraz irakasten hasi zirenetik, eta, *Inkernuz erain* lelopean, ekitaldi sorta prestatu dute urteurren borobila ospatzeko. Ekintzak asteburu osora zabalduko dituzten arren, zapatuan izango dira ekitaldi nagusiak. Otxandiarrek etxean gordetako argazki, testuliburu, eskulan eta askotariko oroigarriak baliatuta, *Ateak ireki* erakusketa berezia egongo da ikusgai eskolan. Era berean, Markel Onaindia kazetari iurretarrak urteurrenerako sortu eta zuzendutako ikus-entzunezkoa erakutsiko dute. Gero, herri bazkaria egingo dute, eta, eguna borobiltzeko, Tio Teronen Semeak taldeak *Haurreskolari* dantza ikuskizuna plazaratuko du.

Biharko egunaren aurrekari legez, gaur arratsalderako ere prestatu dituzte ekintzak. Bingoa egingo dute Kontseilupean, eta talo tailerra Pasealekuan. Ondoren, DJ Pakok musika ipiniko du plazan.

Omenaldia

Andresa Landa ikastolak 1976an hasi zuen bere ibilbidea, eskolaurrea eskainita. "Geroago,



'Haurreskolari' dantza. TIO TERONEN SEMEAK

modu naturalean, euskaraz ikasten jarraitzeko aukera zabalitzen joan zen". Halaxe azaldu du Miren Campok, urteurrena ospatzeko sorturiko taldeko kideak. Bittor Kapanagak utzitako lokal batean izan zuen aterpe ikastolak. Mainondo herri eskolak 1982an hasi zuen bere bidea. Domekan, omenaldia egingo diete ikastola sortzen lagundu zuten 50 pertsonari. Ekitaldia plazan izango da, eta hori amaitu ondoren luntxa izango dute. (Egitaraua agendan).

## Iurretak tentsio handiko eremu izendatzea eskatuko dio Jaurlearitzari

Aitziber Basauri IURRETA

Etxebizitza-larrialdiari aurre egiteko, Iurretak tentsio handiko eremu izendatzea eskatuko dio Eusko Jaurlearitzari. Horretarako, aurretik alokairuen ahalegin-indizea eguneratzea eskatuko du udalak. EH Bilduk proposatuta joan zen asteko udalbatzarrean onartu zuten eskaria egitea, aho batez.

EH Bilduk uste du tentsio handiko eremu izendapena "ezinbesteko tresna" dela alokairuak zuzentzeko, eta "argi" du iurretarek etxea ordaintzerakoan egiten duten ahalegina neurtzen duen indizea %30etik gora dagoela. Jakinarazi duenez, iurretaren errenta pertsonala 23.875 eurokoa

zen 2023an, EUSTATen esanetan. "Durangaldeko baxuena", esan dute. "Ostera, alokairuaren prezioa eskualdeko 3. handiena zen 2025ean —Durango eta Zornotzaren atzetik—; hilean, 659 euro, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren esanetan", argitu dute. Gaineratu dute herrian ez dagoela babeseko edo alokairu sozialeko etxerik. PSE-EEk esan duenez, "tentsio handiko eremu izendapenak aukera emango lieke premiarik handiena dutenei etxebizitza eskaintzeko". EAJk ere uste du neurri egokia dela larrialdiari aurre egiteko.

Bestalde, EH Bilduk eta PSE-EEk beste hainbat neurri proposatu zuten plenoan etxebizitzagaz



Iurretako irudi bat.

lotuta. Baina EAJk aurka egin zuen, "herriaren errealitatea eta baliabideak" kontuan hartzen ez direlakoan. "Gobernu taldea neurriak lantzen ari da egoerari aurre egiteko", esan zuen Oskar Koka alkateak.

## Durangaldeko gazte feministek biribilketa egingo dute Iurretan

A.B. IURRETA

Durangaldeko Gazte Feministak taldeak deituta, zapatuan Biribilketa Feminista egingo dute Iurretan. Besteak beste, Iurretako, Durangoko, Zaldibarko, Berrizko eta Zornotzako 50 bat gazte feminista izan dira jardunaldia antolatzen.

Kalera irten eta espazioak hartzea ez ezik, gazte feministen arteko hartu-emana indartzea du helburu biribilketak. "Eskualdeko gazte feministon komunitatea handitzeko oso baliagarria da aurten Iurretako Abadetxean egingo dugun Biribilketa Feminista", esan du antolatzaileetarikoa Libe Izagirrek.

Solasaldia eta bazkaria

Solasaldi eta hausnarketa saio bategaz hasiko dute eguna. Izagirrek azaldu duenez, "orain dela denbora bat izan den subjektu aldaketa" hartuko dute berba, eskualdearen egoera zein den aztertzeko. "Egoerari buruz hausnartzeko eta behar izanez gero autokritika egiteko" tartea hartuko dute, gazte feministak azaldu duenez. Ondoren, jardunaldira baturiko gazteek muztio eta marianito-edan musikatua izango dute, eta 15:00etan bazkaltzeko elkartuko dira. Bazkalosterako antolatu duten bingo musikatua borobilduko du prestatutako egitaraua.

## EAJk belodromoa estaltzeko obrak hasteko eskatu du

J.D. BERRIZ

Durungaldeko EAJk prentsaurrekoa egin zuen atzo goizean Berrizko belodromoari buruz Mankomunitatean erregistratu zuen mozioaren edukia azaltzeko. Mozioa atzo arratsaldeko plenoan eztabaidatu zuten (edizio hau iterako egin barik zegoen). Proiektuaren lehenengo fasea martxan

ipintzeko, haren finantziariorako eta kirol instalazioaren etorkizuna ziurtatzeko planteatzen dituzten neurriak azaldu zituzten. Prentsaurrekoan, Durungaldeko EAJko alkate eta alkategaiek eta ziklismoaren munduko hainbat pertsona ezagunek parte hartu zuten, hala nola Marino Lejarreta, Ruben Gorospe, Julian Gorospe, Alberto Leanizbarrutia, David Etxebarria, Iban Mayo, Pedro Horrillo, Mikel Pradera, Ziortza Isasi eta Igor Anton txirrindulari ohiek.



Atzoko agerraldian EAJko kideak txirrindulariekin batera.

## Babestu behar duena kontrola galtzen



HERRIAREN ESKUBIDEA  
INDEPENDENTEAK

Poliziarren eginkizuna argia izan beharko litzateke: herritarrek babestea eta segurtasuna bermatzea. Indarra erabiltzeko ahalmena dutenek, hain zuzen horregatik, erantzukizun handiagoa izan behar dute.

Azkenaldian Loiuako aireportuko irudiak edo Valentzian gertatutakoa ikusita, galdera bat sortzen da: noiz hasi gara zenbait jokabide normalizat hartzen? Are gehiago kezkatzen nau askotan entzuten den argudioak: "Probokatu egin zituzten". Baina noiztik justifikatzen du probokazio batek indarkeria?

Beste egoera batean ez genuke onartuko norbaitek kontrola galdu duelako beste bati eraso egitea. Zergatik aldatzen dugu iritzia uniformea tartean dagoenean?

Egia da tentsio oneak egon daitezkeela, baina horiek kudeatzea da prestakuntza eta autoritatea dutenen ardura. Babestu behar duenak kontrola galtzen duenean, herritarren konfiantza ere ahultzen da.

"Garaiz emandako zaplazteko batek tontakeria asko kentzen ditu" entzun izan dugu askotan. Baina agian esaldi horrek ez du indarraren balioa erakusten, beste bide batzuk bilatzeko ezintasunaren normalizazioa baizik.

Indarkeriak obedientzia lordezake, baina ez errespetua. Autoritateak ez luke indarkeria zuritzeko balio behar. Boterea duenari kontrol handiagoa eskatu behar zaio.

## DURANGALDEA ASTEON

## 'Iskanbila' izan da Ferixa Nausikoak 2026ko kartel lehiaketako irabazlea

ELORRIO *Iskanbila* izeneko kartelak irabazi du Ferixa Nausikoak 2026ko kartel lehiaketa. Jose Luis Pulido Calvo da egilea. Epaimahaiak Elorrioko "nortasuna, jai-giroa eta Ferixa Nausikoen izaera koloretsu eta bizia modu sortzaile eta erakargarrian islatzeko ahalegina" nabarmendu ditu. Kartelak Elorrioko irudi eta sinbolo esanguratsuak uztartzen ditu, hala nola feriaren tradizioagaz loturiko elementuak, herriko kultur adierazpenak eta jaietako protagonista. Ferixa Nausikoak irailaren 5ean hasiko dira.



## Europako Mendietako istripua gogoan

DURANGALDEA Elorrioko eta Garaiko herritar talde bat Asturiasen izan da asteburuan, 1987ko helikoptero istripuan hil ziren herrikideak gogoratzen. Elorriarrak ziren hiru, eta garaitarra bat. Asturiasko Erreskate Txakurren Taldeko kideak ere egon ziren omenaldian asteburuan.



## GUTUNAK

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta  
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO: Izen-abizenak / Telefonoa / Helbidea / Nortasun Agiriaren zenbakia.

**Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).**

## Atxarte Osatzen proiektuaren barruan, Atxarteko harrobietara bisita zapatuan

BERRIZ Zapaturako, ekainak 20, bisita antolatu dute Atxarteko Harrobietara. 10:00etan ipini dute hitzordua, Mendiolako Olondo jatetxean. Olondotik oinez joango dira harrobiak bisitatzera, eta ondoren luntxa egingo dute Errekatxon.

## anboto

### ARGITARATZAILEA

Gertuko Koop S.,  
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9  
48215 lurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558  
Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902



### Zuzendaria

Jone Guenetxea Arrinda.

### Erredakzio burua

Ekaitz Herrera Azkarraga.

### Administrazioa

Itziar Belar Zubizarreta.

### Publizitatea

Goretti Alonso Armendia.

### Erredakzioa

Aitziber Basauri Gandiaga,

Joseba Derteano Bilbao,

Maialen Zuazubiskar

Gallastegi, Aritz Maldonado

Zabala.

### Marketina

Deñe Izaga Yeregui.

### Maketazioa

Eider Alberdi Bengoa.

### Zuzentzailea

Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01

ISSN: 1578-7028

Tirada: 12.000 ale



### LAGUNTZAILEAK



Aldizkari honek Bizkaiko  
Foru Aldundiaren laguntza jaso du

Hezkuntza, Hizkuntza Politika  
eta Kultura Sailak diruz lagundua



## AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENENKO EGUERDIA BAINO LEHENAGO.

946 232 523 / agenda@anboto.org

## BARIKUA 19

- **DURANGO Pelota Eskolaren jaialdia** Ezkurdi Jai Alai frontoian, 17:00etan. XV. Peter Memoriala Pilota Txapelketa (finalak), 19:30ean.
- **DURANGO Udai Pintura Tailerreko lanak** Ezkurdi aretoan, ekainaren 21era arte.
- **DURANGO Durangaldeko IX. Kopla Txapelketa** Ander Sarruigarte, Pello Muguruza, Kelmene Abaitua, Ana Picallo, Araitz Katarain, Gorka Pagonabarraga, Txaber Altube, Eneko Abasolo 'Abarkas', Igor Elortza eta Irune Basagoiti. Gai jartzaileak: Ixone Asategi eta Ane Muguruza. Gaztetxean, 19:30ean.
- **ELORRIO Kontzertuak** Zeker + Uda. Portalekuan, 20:30ean.
- **IURRETA Alboka, pandero, atabal eta dultzaina erakustaldia** Abadetxean, 19:00etan.
- **IURRETA XX. Kalez kale Jaialdia** *El peor espectáculo del mundo, de momento!* (Zanguango Teatro), Askondon, 19:30ean.
- **MALLABIA 'Beste zerbait' liburua** Oihana Arana eta Miren Amuriza bertsolariekin. Gai-jartzaileak: Danele Sarruigarte. Kontzejzarrean, 18:00etan.
- **OTXANDIO 50 urte euskalduntzen** Bingoa, Kontseilupean, 17:00etan. Talo tailerra, Pasealekuan, 18:00etan. DJ Pako, plazan, 19:30ean.
- **ZORNOTZA XIX. Haizetara Kaleko Musika Jaialdia** Pierres&Fils (Frantzia), Banda Quetzal (Belgika), Les Roges brass band (Frantzia), Seven seas orchestra (Italia), Mamabrass (Madril), Fanfarria taquicardia (Vigo), Forbi Brass band (Hungaria), Los Justicieros (Madril), Super Panela (Frantzia) eta Barna sabor trubaca (Bartzelona) lehiatuko dira; Sugarri, Malatxo,

Incansables, Mautitxa, Sama Siku eta Zornotzako Banda ere arituko dira. Ekainaren 21era arte, herrian zehar.

## ZAPATUA 20

- **ABADIÑO Harrobieta bisita** Pilar Barraquetak (EKOS) eta Aitor Arrizabalagak (Biologoa- GABAKO kidea) gidatuta. Atxarte Osatzen kanteren berreskuratze planaren barruan antolatuta. Ondoren, luntxa Errekatxon. Olondo jateetik irteno dira oinez, 10:00etan.
- **ABADIÑO Astolako Erromeria** Txupinazoa, 12:15ean. Pregoia, 12:20an. Rocioko meza, 12:30ean. Ohorezko rebujitua, 13:30ean. Azahar taldea, 13:45ean. Gazpatxo txapelketa, 14:30ean. Herri bazkaria, 15:00etan. Gaztelu puzgarriak, 16:00etan. 2026ko Erromeren hautaketa, 17:30ean.
- **DURANGO Gazte Eguna** Gaztetxearen 1. urteurrena. Kamiseta banaketa, 12:30ean. Marianito edana, 13:00etan. Bazkaria, 14:00etan. Ondoren, olinpiadak. Futbito finala, 18:00etan. Txaranga, 19:00etan. Eztanda Erromeria +

**DURANGALDEA San Joan Gaua** Urteko egunik luzeena eta gaurik laburrena, udako solstizioa ospatuko da martitzen gauean. Eskualdean hainbat hitzordu ipini dute suaren bueltan elkartzeko. Durangaldean, ekainaren 23an, iluntzean.

DJ Xirimiri, 22:00etan. Gaztetxean.

- **GARAI Sanjoanek** Donien Atxa jasotzea, 20:30ean. Herri afaria, 21:00etan. Gero, Mirari eta Aintzane trikitilariak. Momoitioko San Joanen.
- **IURRETA Biribilketa feminista** Solasaldia eta hausnarketa, 12:00etan. Muztio eta marianito-edan musikaketa, 13:30ean. Bazkaria, 15:00etan. Bingo musikaketa, 16:00etan. Abadetxean.
- **IURRETA XX. Kalez kale Jaialdia** *Kay robot* (Ameztu), 18:00etan. Eraitsi S.L. (Goitibera), 19:30etan. Askondo aterpean.
- **OTXANDIO 50 urte euskalduntzen** 'Ateak zabalik' erakusketa, eskolan. Txupinazoa, 11:30ean, Mainondon. Herri bazkaria, 14:30ean. Ondoren, 'Koldoren ondarea'. *Inkernuz Erain* dokumentala, plazan, 18:00etan. 'Haurreskolari' (Tio Teronen Semeak), 19:00etan.
- **ZALDIBAR Txakurren Agility Txapelketa** Olazarren, ekainaren 20an eta 21ean.
- **ZALDIBAR Argazki zaharren erakusketa** Ilargi argazki taldeak antolatuta, ekainaren 21era arte, udaletzeko plazan.

## DOMEKA 21

- **DURANGO Sanpedroak** VIII. Tabirako Mendi Martxa. Ibilbide luzea eta laburra, 08:00etan. Tabirako elizatik irtenda.
- **GARAI Sanjoanek** Meza, 12:00etan. Ondoren, dantzariak. Oilasko paella-txapelketa, 14:30ean. Momoitioko San Joanen.
- **IURRETA XX. Kalez kale Jaialdia** Eriz Magoa. Dantzari kalean, 13:30ean.
- **OTXANDIO 50 urte euskalduntzen** Sortzaileei omenaldia, 13:30ean. Luntxa, 14:30ean. Plazan.

## ASTELEHENA 22

- **ZALDIBAR Mural Margoketa** Palestinaren aldeko margoketa. Castet elkartearen, 18:00etan.



TRAKAMATRAKA KONPAINIA

**IURRETA Antzerkia** Trakamatraka konpainiak familia osoarentzako *Matraka Culinary* musika ikuskizuna egingo du, birziklatutako musika instrumentuak baliatuta. XX. Kalez-kale antzerki jaialdiaren barruan izango da, lurretan. Askondon, ekainaren 19an, 18:00etan.

## MARTITZENA 23

- **ABADIÑO Udaburu Jai** Umeentzako herri kirolak eta jolasak (17:00-19:00). Artisanu azoka (18:00-21:00). Eskoletako mendi erronkaren sari banaketa, 19:00etan. Eusko Labeldun hanburgesak, 20:00etan. Sua piztea, 22:00etan. Astolan.
- **BERRIZ San Joan Gaua** Kolpez Blai, 21:00etan. San Joan sua, 22:30ean. Berrizburun.
- **DURANGO San Joan Gaua** Egurrezko jolasak (12:00-18:00). Txokolate solidarioa (gaixotasun arraroak), 18:00etan. 'Oh-Pera' (Zirko Txosko), 18:30ean. Auzoko trikitilariak, 19:30ean. Havana 537, 20:30ean. San Joan sua, 22:30ean. Otamotzena parkean.
- **ELORRIO San Joan Gaua** San Joan ermitara iogera, plazatik, 16:30ean. Pepa eta Kutxo pailazokeriak (Xilipurdi antzerkia) eta merienda, San Joan ermitan, 17:00etan. Gor D.Ja, kiroldegiaren alboko aparkalekuan, 22:00etan. Sua, suzko zezena eta suzko erroberak, 22:15ean.
- **GARAI Sanjoanek** Kopaue eta, ondoren, sua. Momoitioko San Joanen, 21:00etan.
- **IURRETA San Joan Gaua** *Palestina eta lurreta, zubiak eraikiz* (Maiztegiko dantzariak, lurretako dantzariak, Palestinako Childhood and tolerance center elkarteak), 18:30ean. Herri afaria, 20:30ean (mahaiak eta aulkiak jai batzordeak ipiniko ditu). Zutik erromeria, 21:30ean. Iluntzean, sua piztuko da. Ondoren, erromeria. Pan con Txixarron MJ, Gaztetxean.
- **MALLABIA San Joan Sua** Ansoagako bidegorrian, 20:30ean.
- **MAÑARIA San Joan Sua** Artzubin, 20:00etan.
- **OTXANDIO San Joan Sua** Herrian zehar prestatutako San Joan suak piztuko dituzte, 22:00etan.
- **ZALDIBAR San Joan Sua** Olazarren, 22:00etan.

## ZINEMA

## DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

**Toy Story 5**  
Barikua 19: 18:00, 20:30.  
Zapatua 20: 17:00, 19:30, 21:30.  
Domeka 21: 17:00, 19:30.  
Astelena 22: 18:00, 20:15.  
Martitzena 23: 18:00, 20:15.  
Eguaztena 24: 19:00.

**Pioneras**  
Barikua 19: 18:00.  
Zapatua 20: 19:30.  
Domeka 21: 19:30.  
Astelena 22: 18:00.  
Martitzena 23: 18:00.

**Dreams**  
Barikua 19: 20:30.  
Zapatua 20: 17:30, 21:30.  
Domeka 21: 17:30.  
Astelena 22: 20:15.  
Martitzena 23: 20:15.  
Eguaztena 24: 19:00.

**El placer es mío**  
Barikua 19: 18:00, 20:30.  
Zapatua 20: 19:30, 21:30.  
Domeka 21: 19:30.  
Astelena 22: 18:00, 20:15.  
Martitzena 23: 18:00, 20:15.  
Eguaztena 24: 19:00.

## MALLABIA

KONTZEJUZARRA

**Mi querida señorita**  
Domeka 21: 12:15

## ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

**Corredora**  
Domeka 21: 20:00.  
Astelena 22: 20:15.  
**Saliendo del nido**  
Domeka 21: 17:00.

## EGUAZTENA 24

- **GARAI Sanjoanek** Meza, Momoitioko San Joanen, 12:00etan.
- **MAÑARIA Sanjoanek** Meza, San Joan ermitan, 11:00etan. Gero, dantzariak.

## EGUENA 25

- **ABADIÑO Erreka garbiketa** Luntxa egongo da. Izena ematea ekainaren 24ra arte (eajuria@abadino.eus). Trinketearen, 17:00etan.

# MOTOR GEHIGARRIA 2026




# ALLUITZ MOTOR

Alluitz kalea, DURANGO  
94 620 20 04  
[www.alluitzmotor.com](http://www.alluitzmotor.com)



### Auto gidarien profila Durangaldean



Gidabaimena zuten herritarrek Durangaldean, 2024an, generoaren arabera. IKEI IKERKETA ETXEA

## Gidabaimenaren argazkia Durangaldean: 10 gidaritik 6 gizonak dira; 4 emakumeak

Baseri giroko herrietan, emakume gidarien kopuruak gora egin du 10 urtean

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA ANBOTOk Saretzen egitasmoaren lanketa berri bat plazaratu du Tokikomeko herri komunikabideekin eta EITBgaz elkarlanean. Hedabide guztiek hartu dute mugikortasunaren ertzak aztertze konpromisoa, eta honako hedabide honek generoan ipini du fokua, eskualdeko auto gidarien argazkia egiteko. IKEI ikerketa etxearen datuak erabili ditugu errepideetara hurreratzeko. Datuek ageri dutenez, genero arrakala ez da gizarteko beste eremu batzuetan bezain nabarmena, baina, hala eta guztiz ere, biztanleria aldetik emakumeak zertxobait gehiago izan arren, gizonen presentzia apur bat handiagoa dute errepidean: gidarien %43 dira emakumeak, eta %67 gizonak. Honako joera hau ere ikusi daiteke datuetan: hamarkada batean, puntu eta erdi igo da emakume gidarien presentzia: 2014an, adibidez, 4.536 emakume zeukaten gidabaimena eskualdean, hau da, gidarien %41,9k. Hamar urte gerora, 2024an, gidarien %43,3 ziren emakumeak. Puntu eta erdi gehiago. Datuek beste joera eta kasuistika batzuen berri jakiteko ere

balio dute. IKEI ikerketa etxeko datu basearen arabera, Izurtzan nabarmen egin du gora emakume gidarien kopuruak. 2014an, udalerriko emakumeen erdiek baino gehiagok zuten gidabaimena: %55ek. Handik hamar urtera, eta biztanleriaren proportzionaltasuna kontuan hartuta, lautik hiru ziren, hau da, %75. Gainerako udalerrietan ere antzera bateko joerak topatu daitezke, nahiz eta mugimenduak apalagoak izan. Mallabian, adibidez, %56 ziren emakume gidariak 2014an. 2024an, ostera, ia hamar puntu egin zuen gora kopuruak: emakume mallabitarrren %65 irteten zen errepideetara. Garaiko emakumeen artean berdintsua izan da joera: %51 izatetik %60 izatera pasatu dira. Eta Mañarian ere, apalago bada ere, gora egin du emakume gi-

### Emakume gidarien kopuruak ia hamar puntu egin du gora Mallabian 2014tik 2024ra

darien kopuruak. %56 izatetik % 60 izatera pasatu dira. Azpimarratzekoa da zerrendaturiko udalerririk horiek guztiak landa eremukoak direla gehienbat, eta horrek beste errealitate bat ere ipintzen duela mahai gainean. Izan ere, garraio publikoa eta bere lotuneak baserri giroan urriagoak izan daitezkeela eta, horrek handitu egin lezake auto pribatuaren beharrezana, herrigune urbanoen aldean. Durangon eta Zornotzan, esate baterako, emakumeen %48k zuten gidabaimena 2014an. 2024an %51 ziren, hiru puntu gehiago. Zornotzan antzekoa da argazkia. Baina, datuetara mugatu barik, istorio bila ere irten gara kalera. Emakume gidari bi elkarriketatatu ditugu. Apeko Mila Arana Goikoetxea da eurretari bat, 82 urteko gidaria. Autoa egunero erabiltzen duela kontatu du, Axpe baketsuan bizi izanda behar-beharrezko tresna duelako errekaduak egiteko. Beste elkarriketatua Eneritz Urzuriaga da. Automobilaren beste ertz bat aztertu dugu beragaz. Rally eta motor munduan emakumeek duten geroago eta leku nabarmenagoa, hain zuzen ere.

### Hiru herri, hiru kasu

#### Emakume gidariak izurtzan

Datuak, ehunekotan (%)




Iturria: IKEI ikerketa etxea

**Lautik hiru.** IKEI ikerketa etxearen datuen arabera, proportzionaltasunari dagokionez Izurtza da emakume gidaririk gehien duen udalerririk eskualdean. Lautik hiru dira; beraz, %75. Datu zehatzetara joita, 2024an 75 izurtzar ziren emakumeak, eta eurretarik 56k zeukaten gidabaimena.

#### Emakume gidarien argazkia Mallabian

Emakumeen kopurua totala, Emakume gizona




Iturria: IKEI ikerketa etxea

**Ia hamar puntuko igoera.** 2014an, Mallabiko biztanleen artean 604 ziren emakumeak, eta eurretarik 338k zeukaten gidabaimena emakumeen %56. Handik hamar urtera, 2024an, %65 ziren. Faktore bik bat egin dute joera hori islatzeko: batetik, biztanleriak -emakumeen kopurua barne- behera egin du Mallabian, eta, bestetik, gehiagok atera dute gidabaimena.

#### Gidarien bilakaera Durangon

Gizonezkoak, Emakumeak



Iturria: IKEI ikerketa etxea

**Aldaketa handiegirik barik.** Durangoko biztanleria handitzen joan da urterik urte, eta horrek gidari kopurua igotzea ere ekarri du. Proportzioak ez dira aldatu. Izan ere, 2014an gidabaimena zeukaten durangarren artean %51,5 gizonak ziren, eta %48,5 emakumeak. Hamar urtera, biztanle eta gidari kopuruak gora egin arren, joera antzekoa da: %47,1 emakumeak dira, eta %52,9 gizonak.

**Ekaitz Herrera/Aritz Maldonado**

ATXONDO

Lagun baten iruzkin batek "min egin", eta Mila Arana Goikoetxeak (Axpe, 1944) gidabaimena ateratzea erabaki zuen. ANBOTOko kazetari bigaz batu da, autoz egiten duen bueltatxoetarikoa bat egiteko. Axpeko San Joan auzora ere joan dira itzulian. Aspaldiko partez hara joan bakoia zen autoz. "Operatu nindutenetik hona natorren lehenengo aldia da, baina gidatzea ez da ahazten", esan du.

**60 bat urtegar erabaki zenuen gidabaimena ateratzea. Zergaitik?**

Bere sasoiari atera behar nuela esan zidaten, baina utzi eta utzi, geroago atera nuen. Senarrari itxaroten egoten nintzen, Eibarren (Gipuzkoa) bizi ginen eta. Autobusean joaten nintzen ere ordutegien menpe egoten nintzen. Lagun batek esan zidan: "Karneta atera beharko zenuke, auto txiki batez ezin hobeto moldatuko zinateke. Begira ni ere zelan ibiltzen naizen". Berak ere gerora atera zuen, eta horrek animatu egin ninduen.

**Arantzaxo hori zenuen?**

Neure buruari sarri esaten nion: "Zeinen ondo etorriko litzaidakeen gidabaimena izatea", baina gero ez nion garrantzirik ematen. Bere sasoiari ahalegin bat egin nuen, baina haurdun geratu nintzen, bigarrenez. Gero, normala den moduan, beste hainbat gauza egin behar nuen, eta alde batera utzi nuen kontua. Kontzentratzea ere kostatu egiten zitzaidan. Alaba Ikastolan hasi zenean ikusi nuen aukera, eta ikasten hasi nintzen. Animatu egin nintzen, eta horrela jarraitu nuen.

**Zelan aldatu zizun bizitza gidabaimena edukitzeak?**

Independentzia itzela eman zidan. Baserrira etortzeko, umeekin egoteko, eta eurak batetik bestera eramateko. Bestela, lotuta nengoan autobusaren ordutegietara. Egin dudana gauzarik onena izan da.

**Irakurlearen bat dudana balego, animatuko zenuke?**

Bai, jakina! Egin dezatela aproba, beldurrik barik. Lehenengo ahaleginean ez bada, aterako dute bigarrenean, edo hirugarrenean. Bestela, nik neuk egin nuen moduan. Baina atera dezatela, ez dira damutuko. Teorikoa lehenengoan atera nuen nik, baina praktikoa gehiago kostatu zitzaidan. Ahizpetarikoa batek ere atera zuen, baina gero ez zuen ja-

# "Gidabaimena ateratzea inoiz hartu dudana erabakirik onena izan da; derrigorrezkoa da baserrian bizitza"

**MILA ARANA GOIKOETXEA AUTO GIDARIA**

Gidabaimena ateratzeak askeago bizitzea ekarri dio Mila Arana atxondarrari; inguruetan dabil gehienbat, baina Belgikara ere joandakoa da autoz, Fleche Wallone txirrindularitza proban Unai Etxebarria iloba ikustera



Mila Arana Goikoetxea.

ere landa eremuetako herritarren kasuan.

**Inguruetatik bakarrik ez, bidaiak luzeagoak ere egindakoa zarela entzun dugu, Donostiara eta.**

Bai! Orain, baina, ezinezkoa da hara joatea, aparkatzeko ezinezkoa delako eta oso garesti dagoelako. Unai Etxebarria iloba txirrindulariaren lasterketetara ere joandakoa gara senarra eta biok. Lekutara, gainera! Behin Belgikaraino, Fleche Wallone klasikoa ikustera. Asier Etxebarriak emandako argibideekin heldu ginen haraino. Txandaka gidatu genuen. Esperientzia itzela izan zen.

**Esperientziak zer erakutsi dizu?**

Ez dut sustorik izan, eta urduri ere ez naiz ipintzen. Ezta autobidean ere, kamioi handien artean ibili arren. Bolanteari ondo eutsi, bidean adi joan, eta aurrera egitea da kontua. Hori bai, norberaren erritmora. Zertarako urduri ipini? Hobe da lasai joatea.

**Kotxean musika entzuten joaten zara ala gurago duzu esatarien berbak entzun?**

[Irratia piztu eta Gaztea dago sintonizatuta] Askotan entzuten dut irratia, bidelagun ona da autoan joateko, etxean telebista ona den moduan egonean egoteko. Kasu honetan, ilobek ipinitako sintonia da entzuten gabiltzana, eurek hori entzuten dute eta. Sarri merienda ematera joaten naiz eurengana. Gaur ez, jakina, zuekin geratu naizelako, eta eurretarikoa bat, Arri, Lekeitiora joan delako. **Errepidea txirrindulariz baterik egoten da sasoi honetan.**

Bai. Kontuz ibili beharra dago beti. Adi joan behar da kurbetan, eta batez ere goitik beheara datozen auto eta txirrindulariekin.

rraitu gidatzen, eta uzten joan zen. Gaur egun nagituta dago eta ez du gidatzen. Nik beti eutsi diot. Sarri hartzen dut autoa, ahizpengana Durangora joateko, erosketak egitera joateko, makalik egon direnean ahizpak bisitatzeke, iloben bila joateko... Autoan joateak ate asko zabalik mantentzen dizkit. Gidabaimena izatea beharrezkoa dela esango nuke, batez

**"Unai Etxebarria ilobaren lasterketetara ere joandakoa naiz autoan senarragaz"**

**"Bolanteari ondo eutsi, bidean adi joan, eta aurrera egitea da kontua. Hobe da lasai joatea"**

# TAILLERREN



## AUTOGAIN TALLERES

San Agustin ind., 57- 6.pabilioia,  
ELORRIO  
Tel.: 946 056 732 / 679 174 367

Txapa. Pintura. Pneumatikoak.



## AUTOS ELORRIO 2014 S.L.

Betsaide industrialdea, 9  
ELORRIO  
Tel.: 946 583 060

Mekanika orokorrean. Aukerako  
ibilgailuen salmenta. Karrozeria.



## ZUBIMAR AUTO

Mallabierna industrialdea z/g  
IURRETA  
Tel.: 946 20 35 00

Mantentze-lanak, balaztak, esekidura,  
argiak, IAT, homologazioa.  
4x4 espezialistak, osagarriak.  
Kontzesionario ofiziala mg-rover.  
Ekainean 31 urte.



## AUTO REPARACIONES AMAYA

Arangoitia industrialdea  
IURRETA  
Tel.: 946 812 123

Multimarka tailerra.



## CARROCERIAS OLAKUETA

Eitua ind, 47  
BERRIZ  
Tel.: 946 824 501

Kolore aldaketa. Erabateko  
desmuntatzea. Era guztietako kolpeen  
konponketa. Karrozerien kolorea  
aldatzea. Mekanika guztia.



## GARAJE SAN MIGUEL

Dantzari Auzunea, 8 IURRETA  
Tel.: 946 811 479 /  
628 233 584

Kutxa automatikoen mantenua.  
Mekanika orokorrean.  
Zerbitzu bizkorra, mantenua,  
elektrizitatea, pneumatikoak, diagnostia,  
IATaren aurrekoa, aire girotua.

# GIDA



## NEUMÁTICOS ETXEBARRIA

Uribitarte indus. 6,  
MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 232 520

Olio aldaketa, pneumatikoak (marka guztiak), balazta pastillak, motelgailuak.



## URANGA AUTOAK

Goitondo industrialdea 1.pab. - behea  
MALLABIA  
Tel.: 943 179 717  
WhatsApp: 685 751 848

Ibilgailuen konponketa eta mantenimendua.



## AUTO REPARACIONES MALLABIENA

Mallabiena z/g  
IURRETA  
Tel.: 946 816 150

Ibilgailu industrialen konponketa orokorra.



## URKILAN

Urkizauran, 39  
ELORRIO  
Tel.: 946 820 237

KMO autoen salmenta, Mekanika orokorra, Elektronika, Aire girotua R134A eta 1234yf, Gurpilen aldaketa, IAT aurretiko azterketa, ADAS programazioa, Kaja automatikoen dialisia



## MOTOS UK RACING

Laubideta, 9  
ABADIÑO  
Tel.: 846 661 060

20 urteko esperientzia motoen munduan. Motoen eta Quad-en kontzesionario ofiziala. Tailer mekanikoa, IAT, ordezkoen hornidura eta boutique espezializatua ditugu.



## TALLERES SERAFIN

Elorriagazar, 11  
MATIENA-ABADIÑO  
Tel.: 946 814 870

45 urte baino gehiagoko esperientzia. Gurpilen lerrokatzea, olio aldaketa, karrozeria, gurpilak jartzea, IAT pasatu aurreko azterketa.



## GnG ELORRIO

San Agustin, 1  
ELORRIO  
Tel.: 637 720 071

Zure konfiantzazko tailer mekanikoa.

# "Hasi nintzenean bi edo hiru ziren emakume kopilotuak, eta orain erdiak gara"

**ENERITZ URZURIAGA RALLY KOPILOTUA**

Eneritz Urzuriaga orain dela zortzi urte hasi zen rally munduan kopilotu; afizio zuena probatu eta gero, pasio bihurtu zaio Durangon bizi den etxebarritarri

**Aritz Maldonado** DURANGO

Eneritz Urzuriaga etxebarritarrak etxean beharbada ez, baina inguruan beti izan ditu motor zaleak. Kuriositateak bultzatuta edo, probatzera animatu ostean harra barruraino sartu eta Urzuriagak pasioz bizi ditu motoak eta autoak. Azken urteetan kopilotu legez dabil lehiatzen, batez ere; eta emakumezko pilotuekin aritu denean, ilusio berezia egin diola azpimarratu du. Alde horretatik, Emakumeak Automobilismoan elkartearen dabilen lana nabarmendu

gura izan du. "Lan mordo egi-ten dabilta. Ni hasi nintzenean bi edo hiru ziren emakume kopilotuak, eta orain askoz ere gehiago gaude".

**Nondik datorkizu autoekiko zale-  
tasuna?**

Ez dakit zehatz esaten. Aitak badu zaletasun apur bat, baina etxean inork ere ezingo luke esan "etxean txikitatik ikusi ditut kotxeak". Baina Etxebarri herri txikia da eta nire adineko gehienak mutilak; afizio handia dago eta normala da ikusten duzunaz zaletzea. Nik auto las-

terketa asko ikusi dut, eta, jakina, autoan eta motoan ibiltzen hasi nintzen, mundu horren saltsan.

Motoa ere asko gustatzen zait, baina kopilotu izateko aukera eskaini zidatenetik horretan ibili naiz zortzi bat urtean. Proba legez, Bizkaiko Rallye Balkoia proban parte hartu nuen eta hemen jarraitzen dut oraindino. Proba bat egin genuen lehenengo, notak hartzeko, eta horregaz etxeko tarte batean praktikatu genuen. Dena berria zen, baina konbentzitu egin ninduen. Mo-



Eneritz Urzuriaga eta Iosu Alberdi.

## EuskadiLowCost



- 24 orduz zabalik, autozerbitzu gisa
- Txartel bidezko edo eskudiruzko ordainketa
- Berehalako deskontuak fidelizazio-txartelarekin
- Doako aire eta ur zerbitzua
- Salmenta makinak eta kafe makinak



Euskadi Low Cost-Berriz  
Pol.Ind.71, 48240 Eitua, Bizkaia



## DESGUACES PILASTRA

Fauste auzoa 18, Iurreta  
Tel: 946 201 787

Ibilgailuak tratatzeko eta deskutsatzeko baimendutako zentroa gara. Desegiteko ibilgailuak erosten eta marka guztietako pieza erabiliak saltzen lan egiten dugu.




## ARRIBIDE

GASOLINDEGIA

estacionservicio@arribide.com  
arribide.com

946 818 381  
POL. IND. ARRIANDI, P-1  
48215 IURRETA-BIZKAIA



toagaz lehenago hasi nintzen; lehengusuari erosi nion nire lehenengo motoa. Hor ere berdin, ibili, jausi eta altxatzen ikasten da. Motoa fisikoagoa da eta ez naiz hainbeste lehiatu.

#### Ordu asko eskatzen duen zaletasuna da.

Bai. Motor mundua ez dira asteburuak bakarrik, ez dira karrerak bakarrik. Horiek ordu asko kentzen dute, baina baita prestaketak ere. Horrez gainera, karrerak ikustera joatea ere gustuko dut. Beraz, bai, denbora asko eskatzen duen zaletasuna da. Denboraldia martxo inguruan hasten da, Gabiriako Rally Sprintagaz, eta urrira arte-edo irauten da. Baina dena ez dira karrerak, afizioa ere hor dago.

#### Zelan eraikitzen da pilotuaren eta kopilotuaren arteko konfiantza?

Hainbat pilotugaz aritu izan naiz. Aukera eman zidan pilo-

tuagaz hasi nintzen. Gero, Etxebarriko bategaz lasterketa batzuetan parte hartu nuen, eta ondoren Durangoko bategaz hasi nintzen. Azken urte biak Iosu Alberdi azpeitiarragaz egin ditut. Gidari berri bategaz hastea kostatu egiten zait, baina gero ordu mordoak egiten dugu elkarregaz eta ondo moldatzen gara. Lehenengo eta behin, konfiantza behar duzu zeure buruan, eta gero bestearengan. Hura ere zuk esaten diozunaz fidatu behar da. Esan dudan moduan, ordu asko pasatzen dugu elkarregaz, prestaketa lanetan, bidaiatzen, karreran... momentu onak eta txarrak daude, baina horrela ikasten da.

#### Esango nuke motor mundua nahiko maskulinoa izan dela beti. Horrela izaten jarraitzen du?

Askok aldatu dela esango nuke. Oraindino ere behar mordoak dago egiteko, baina nire iritzian asko aldatu da, hobera. Ni hasi nintzeanean, emakumezko kopiloturen bat edo beste ikusten zenuen, bi edo hiru. Eta orain erdiak inguru neskak garelako esango nuke. Eta ibili naizen urteetan ikusi dut denek dutela laguntzeko gogoia, neska zein mutil izan. Askotan,



Maria Aranbarri eta Eneritz Urzuriaga.

poztu egiten dira neskak hain animatuta ikustean. Orain urte pare bat Emakumeak Automobismoan taldea sortu zen eta horrek ere badu bere eragina; lan handia egiten dabilta.

#### Pilotu aritzea gustatuko litzazuke?

Sarri egiten didaten galdera da! (barrez). Gustatuko litzazuke, baina errespetua ematen dit. Gainera, hainbeste bider galde-

tuta, presio apur bat ere sentitzen dut. Egia esanda, pilotu dabilta neskak inbidia itzela ematen didate. Prest nagoenean, egingo dut.

#### Badago motor zaletasunik Durangaldean?

Badago, bai. Orain sei urte etorri nintzen Durangaldera bizitzera, eta berez nire kuadrilla ez da hemengoa, baina badituzte

motor zaletasunak batzen gaituen lagun batzuk. Beti dut baten bat ondoan motoan ibiltzera joateko, edo Patrolagaz ibiltzera joateko, eta alde horretatik pozik nago, zorte handia daukadala esango nuke. Baliteke Etxebarriaren dagoen besteko zaletasunik ez egotea Durangaldean, baina egon badago, batez ere Atxondo eta Elorrio inguruetan.

**"Gustatuko litzazuke pilotu aritzea, baina errespetua ere ematen dit"**

## Aurreztu 3 zentimo litroko

Zentimo 1 litroko  
Alcampo klub-ekoa bazara

Club  
Alcampo

2 zentimo litroko  
Alcampo Dúo eta a automatic-en bidez

Gasolinaren preziorik onena hemen ondoan duzu, Durangon

Alcampo gasolindegietan bakarrik Alcampo

(1) Gehienez 3 zentimoko saldo metagarria, Club Alcamporen leialtasun-saldolari gehituko zaiona. Bi zentimoko saldo metagarria zure Alcampo Dúo txartelarekin ordaintzeagatik Automatic-en bidez, eta zentimo bateko saldo metagarria Alcampo Klubeko káse izateagatik. Kontsulta ezazu atxikitako zerbitzuaguztetan. (2) Eskuratu puntu kopuru bikoitza otzeratutako erosketak bakoitzeko (Ez da balio hileren amaierako erosketetan, ezta %0ko UTBarekin ere)



- Bajak izapidetzea.
- Garabien zerbitzuko bilketak.
- Eusko Jaurlaritzako KUDEATZAILER BAIMENDUA.
- Gehieneko tasazioa duten autoen salerosketa.
- Balio-bizitzaren amaieran deskutsatzeko tratamendua eta ibilgailuen kudeaketa.
- Garabi zerbitzua 24 orduan, Euskal Herrian eta inguruetan.
- Ordezko pieza erabilien salmenta.

Mallabarrena poligonoa, 10-12 - 48269 Mallabia  
664 563 291 - 632 812 666



urkiOil  
E.S. Otxandio · E.S. Izurtza

UrkiOil gasolindegia  
ibilgailuetarako  
aukerarik onena.

- GLP, butanoa, kanpin-gasa.
- Kotxeak garbitzeko aukera.
- Barbakoak egiteko ikatza, izotza, platerak...

📍 BI-623, 48213 IZURTZA 📍 BI-623, 48210 OTXANDIO



# AXPE ETA APATAKO JAIK 2026



*2026ko jai zoriontsuak  
opa deusueguz!*



# AXPEKO JAIETAKO EGITARAUA

## EKAINAK 19

- **17:30** Atxondoko II. Pilota Goxua Txapelketako finalurrekoak.
- **19:30** Pintxopotea.
- **20:30** Txopoa jasotzea.
- **21:30** Kontzertuak: Fossil, Fito Skins, Nevadah eta DJ Bull.

## EKAINAK 20

- **11:00 -14:00** Sagardo eta sagar-zuku dastatzea. Bakailaoa pil-pilean eta patata tortilla lehiaketa.
- **14:00** Aurkezpen ordua eta herri bazkaria frontoian.
- **16:30** Bingoa.
- **17:30** Mus txapelketaren hasiera.
- **18:30** Andoni Oilokiegi.
- **ONDOREN** DJ Igor, DJ Lamikiz.

## EKAINAK 21

- **GOIZEAN**, artisautza azoka eta nekazaritza-produktuen azoka.
- **11:30** Meza.
- **12:30** Dantzak Andasto taldeagaz.
- **ONDOREN**, igel txapelketa.
- **13:00** Mus txapelketaren amaiera.

## EKAINAK 23

- **17:00** Haurrentzako jolasak.
- **21:00** San Joan suak.
- **ONDOREN** txokolatea.

## EKAINAK 24

- **11:30** Meza nagusia, eta ondoren luntxa jubilatuentzat.
- **17:00** Briska txapelketa.

# APATAKO JAIEN EGITARAUA

## EKAINAK 21

- **8:30** Mendi martxa Apatako plazatik hasita. Amaieran luntxa Axpen.

## EKAINAK 25

- **18:00** Txopo txikiaren apainketa Gazttxean.
- **18:15** Gazttxeko txupinazoa.
- **19:00** Txopo txikia eta handia kalejiran Irubidetik. Ondoren, pregoia antzerki taldearen eskutik, taloak eta txosnaren irekiera plazan.
- **19:30** Ondozik elektrotxaranga plazan. Ondoren, Igor Martinez/Lamikiz DJak.
- **01:00** Gazttxea zabalik.

## EKAINAK 26

- **18:30** Aurpegi margotzea plazan.
- Pelma&Luis herriko aurrean.
- **21:00** Herri afaria frontoian. Mahai-zapia, ogia eta kafea jai batzordeak ipiniko ditu.
- **23:00** Zutik erromeria plazan.
- **01:00** DJ Kuku plazan.
- **02:00** DJ Igor Martinez Gazttxean.
- **06:00** Afterra Gazttxean.

## EKAINAK 27

- **12:00** Goitibeherak Cemosako aldatsean.
- **13:00** Igel txapelketa plazan.
- **14:30** Kuadrillen paellak plazan.
- **17:00** Kuadrillen arteko jolasak plazan.
- Mus txapelketa tabernetan.

## EKAINAK 28

- **11:00** Azoka plazan.
- **12:00** Euskal dantzak frontoian.
- **16:30** Pilota partiduak frontoian: umeen finala, goxua 2. mailako finala, goxua 1. mailako finala eta afizionatuen partidua.
- **20:00** Antzerkia Barsanti konpainiaren 'Kale gorrian' ikuskizuna.
- **21:00** Kontzertuak Gazttxean: Zartada, Eztanda eta Estutu.

## EKAINAK 29

- **12:00** Jubilatuen luntxa soziedadean.
- **18:30** Txopoa botatzea plazan. Ondoren, txokolataa denentzat.

**akebaso**  
akebasorestaurante.com

*Jaietan zatoz gurera,  
eta ondo pasa San Pedroetan!*

San Juan auzoa 16, Axpe - akebaso@akebasorestaurante.com - 94 658 20 60

**DRAXTON**  
ATXONDO

**DRAXTON** **GIS**  
Mobility inspired



www.draxton.com

Europako automozio balazta sektoreko osagalen ekolozpenean liderrak gara



## Antzerki eskolaren pregoiak eta txopoen kalejirak hasiko dituzte Apatako jaiak

Ekainaren 25etik 29ra bitartean, festa giroa biziko da herriko kaleetan

A. M. ATXONDO

Antzerki taldeko kideen pregoiagaz hasiko dituzte aurtengo sanpedroak Apatan, ekainaren 25an; txopo handiagaz eta txikiagaz kalejira egin eta jaso ostean izango da hori. Pregoiaren ondoren, auzotarrak txosnen irekieragaz eta Ondoezik elektrotzarangaren giroagaz murgilduko dira jaietan. Erromeriek ez ezik, musika jartzaileek eta doinu elektronikoez ere izango dute protagonismoa jaietan; horren adibide, Igor Martinez eta Lamikiz DJ-ek dantzan ipiniko dute mundu guztia. Barikurako ere antzeko formula aukeratu dute. Arratsaldean Pelma&Luis musika jartzaileek euren doinu dantzagarriekin giroa dute herria, umeez aurpegiak margotzeko aukera duten bitartean. Gauean, Zutik taldeak erromeria egingo du, eta ondoren DJ Kukuk dantzan ipiniko du plaza, eta DJ Igor Martinezek gaztetxea. Aurretik, 21:00etan, herri afaria egingo dute frontoian; mahai-zapia, ogia eta kafea jai batzordeak ipiniko ditu.

Zapatuko protagonistak kuartillak izango dira, paella janagaz eta ondorengo jolasekin; mus txapelketa ere egingo dute tabernetan. Arratsaldean Joseito Ta Alayak elektrotzarangak herriko kale nagusiak zeharkatuko ditu, eta gauerako eskaintza bikoitza egongo da musika aldetik: alde batetik, Gorka Basoa eta Oier eta Aratz gaztetxean egongo dira, eta



Aurreko jaietako artxiboko irudi bat.



Marte Lasarte.

Zilibito Records eta Marte Lasarte plazan.

**Domekan ere jai**

Jaiak borobiltzeko, domekan kirol eskaintza egongo da; izan ere, frontoian pilota partiduak

jokatuko dituzte. Iluntzean, Barsanti konpainiak Kale gorrian ikuskizuna egingo du, eta Zartada, Eztanda eta Estutu taldeek kontzertua joko dute gaztetxean. Astelehenean amaituko dituzte jaiak, txopoa botata.

PSIKOGUNEA

# alboan

• Hitz egiten duten gorputzak entzuten •

Psikomotritate, yoga, homeopatia, erlaxazio-harmonizazio saioak, Breathwork eta Kundalini, ikusmen naturala eta yoga bisuala.

Tel.: 688 774 295  
Jose Antonio Agirre etorbidea, 2  
ATXONDO

**la kompra**  
SUPERMERCADO AMIGO

Euskal Herria kalea 3, ATXONDO  
Tel.: 946 550 995

Ondo pasa jaietan!!

la Kompra supermerkatuak

# itziar

Kafetegia - Taberna

Benta Barri, 2 · Tel.: 946 582 363 · 48291 Atxondo (Bizkaia)

# BURDINAK, S.L.

EBAKITZE LERROA - DESAGERKETA - ZIZAILAK

Artia indus. ATXONDO Tel.: 946 583 164 Faxa: 946 583 416  
www.burdinak.com

BI-632 Durango  
Pol. Ind. ARTIA  
BI-632 Elorrio  
Atxondo

**HIRUMET**

Bildu, sailkatu, berrerabili...  
Eta energia oraindik urrunago joateko

Zoriontsuak izan Jaixetan!

ZUNTZ MOLDATUZKO ONTZI BIO DEGRADAGARRI ETA BIRZIKLAGARRIAK

# cemosa

GRUPO CELULOSAS MOLDEADAS, S.A.

Autonomia 2  
ATXONDO (Bizkaia)  
Tel.: 94 623 17 17  
Faxa: 94 623 17 99  
www.soul-cemosa.es



# BERRIZKO JAIAK 2026



  
berrizko  
UDALA

**Berrizko Udala**  
Tel.: 946 824 036  
[www.berriz.eus](http://www.berriz.eus)

**Berrizko Udalak San Pedro eta Santa Isabel jaiez gozatzea opa dizue**

2022  **Bikain**  
BERRIZKO UDALAK

# BERRIZKO JAIEN EGITARAUA

## EKAINAK 26

- **19:00** Pregoia eta txupinazoa, Miren Amuriza Plazagaz. *Udaletxean.*
- **Ondoren**, jaietako kartel lehiaketaren sari banaketa. *Udaletxean.*
- **Ondoren**, urtero legez, sardina-jana.
- **19:30** Txosnen irekiera eta kontratxupinazoa. *Txosnagunean.*
- **20:00** Donien Abxa eta Dantzari Dantzako entsegua. *Elizondo plazan.*
- **21:30** Erromeria. *Elizondo plazan.*
- *Luhartz taldea*
- **22:30** Kontzertua:
- *Reder*
- *DJ La Fulana*
- *DJ Alaine*

## EKAINAK 27

- **10:00** Kuadrillen bazkarirako zozketa. *Elizondo plazan.*

- **14:00** Paella lehiaketa. *Udaletxeko lorategian.*
- **18:00** Mozorroen jaitiera.
- **18:30** Diskofesta: Oihan Vega. Haurrentzat saio berezia. *Elizondo plazan.*
- **19:00** Herriko Igel Txapelketa. Izen ematea: 18:30-19:00.
- **22:00** Diskofesta: Oihan Vega. *Elizondo plazan*
- **ONDOREN**, DJ Maria Blessive
- **22:30** Erromeria *txosnagunean.*
- *Aittu taldea.*
- **ONDOREN:**
- *DJ Kuku eta Kene + DJ Amama.*

## EKAINAK 28

- **11:00 - 14:30** Artisau azoka Berrizturen eskutik. *Udaletxeko lorategian.*
- **11:00** Umeentzako herri kirolak. *Elizondo plazan.*
- **12:00** Herri kirolak 'txapelketa ofiziala'. *Elizondo plazan.*
- **14:00** XIV. Jose Ramon Korpion Memoriala bakailaoa pil-pilean lehiaketa. *Udaletxeko lorategian.*
- **17:00** Esna Gazte. Gazte eta familientzako ikuskizuna. Dantza, jokoak eta sorpresak. *Elizondo plazan*
- **19:00** Bertso saioa: Kelmene Abaitua, Araitz Katarain eta Iruñe Basagoiti. *Txosnagunean.*
- **22:00** Kontzertua. *Elizondo plazan*
- *Jonkass.*



**BERRIZ kontzertua.** Elizondo plazan, ekainaren 28an, 22:00etan.

## EKAINAK 29

- **12:00** Meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza.
- **17:00** Tiragomas txapelketa. *Udaletxeko lorategian.*
- **18:00** Mus txapelketa/patxanga. *Txosnagunean.*
- **20:00** Dantzari Dantza.
- **22:00** IOI HAATIK dantza taldearen dantza ikuskizuna. *Eskolako patioan.*
- **00:00** Karaokea *Txosnagunean.*

## EKAINAK 30

- **12:30 - 14:00 / 16:00 - 19:00** Ur parkea kiroldegiko aparkalekuan. Euria eginez gero, kiroldegian.
- **17:00** Ate irekien jardunaldia: gimnastika erritmikoa. *Elizondo plazan.*
- **19:00** Antzerkia "B.O.B.A.S.". *Udaletxeko lorategian.*

## UZTAILAK 1

- **11:00 - 14:00** Jokai-Larun euskal mitologian inspiratutako jolasak. *Udaletxeko lorategian.*

- **14:00** Bazkaria *Txosnagunean.* Ondoren, bingo musikatua.
- **17:00** Mistoetako eta mutilen binakako frontenis txapelketako finalak. *Olakueta frontoian.*
- **18:30** Matraka elektrotxaranga Urriaga plazatik hasita.
- **19:00** Klowna eta magia 'Gota' Txema Muñoz. *Eskolako goiko patioan.*
- **22:00** Erromeria Errota. *Elizondo plazan.*
- **22:30** Kontzertuak:
- *Sua*
- *DJ Marrazo*
- *DJ Zelaiets*

## UZTAILAK 2

- **12:00** Meza nagusia. Ondoren, Dantzari Dantza.
- **14:00** Jubilatuen bazkaria. Bazkalostean musika. *Kiroldegian.*
- **20:00** Dantzari Dantza. *Elizondo plazan.*
- **20:30** Tortilla lehiaketa. *Udaletxeko lorategian.*
- **23:00** Deabruak Gara. Lekittoko Deabruak. Su eta piroteknia ikuskizuna. *Kiroldegitik udaletxeko lorategira.*

**T.A. TORNILLERIA AMEZUA**  
75 URTE  
1951

[www.tornilleria-amezua.com](http://www.tornilleria-amezua.com)

**BERRIZ ARKITEKTOAK**

Josu Oarbeaskoa  
Patxi Ecenarro

Learreta Markina 24 behea, Berriz  
T: 946 82 77 49  
E: o.josu\_berrizarkitektoak.com

**GAER DESINFEKZIOAK**

**Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:**

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

**keinu**  
OPTOMETRIA ZENTROA  
PSE: 162/13

Naia Zabala Azurmendi  
11587 kol. zk.

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaz 3 - BERRIZ - 94 622 50 99  
[keinuoptometrizentroa.com](http://keinuoptometrizentroa.com)

**pedrojuanena**  
JATETXE-ERREDEGIA

SAN ANTONIO, 1.  
48.240 BERRIZ BIZNAIA  
TEL: 94.682.63.46

A. M. BERRIZ

Aurten Miren Amuriza Plazak emango die hasiera Berrizko San Pedro eta Santa Isabel jaiei, berak irakurriko du-eta pregoia udaletxean. Ekainaren 26an izango da hori. Ohikoa duten moduan, ekitaldi berean jaietako kartel lehiaketako sari banaketa egingo dute, eta sardina-jan tradizionala txupina jaurti eta gero. Txosnen irekiaren eta kontratxupin ekitaldiaren ondoren, Donien Atxa jaso eta Dantzari Dantzaren entsegu orokorra egingo dute. 20:00 aldera izango da hori, eta, urtero legez, ekitaldiak jendetza batuko du. Gauean, Luhartz taldearen erromeriak Elizondo plaza hartuko du; txosnagunean Reder taldeak eta La Fulana eta Alaine DJek girotuko dute gaua.

Biharamunean, ekainaren 27an, kuadrillek hartuko dute protagonismoa. Goiztiarren 10:00etarako prest egon behar dute, zozketarako. Ondoren, paella lehiaketa eta jana egingo dituzte udaletxeko lorategian. Behin sabela beteta, mozorro jaitiera egingo dute; 18:00 inguru izaten da. Elizondo plazan, Oihan Vegak emanaldi bikoitza



Artxiboko irudia.

## Gastronomia lehiaketak eta kultur ikuskizunak Berrizko jaien erdigune

Miren Amuriza Plazak emango die hasiera San Pedro eta Santa Isabel jaiei

izango du: arratsaldean, umeentzat bereziki prestatu duen saioa egingo du, eta gauean gazteagoi zuzendurikoa; gero, DJ Maria Blessive arituko da. Txosnagunean, Aittu taldeak erromeria doinuak hurbilduko

ditu, eta DJ Kuku eta Kenek eta DJ Amamak doinu modernoak plazaratuko dituzte.

**Lehia gastronomiko gehiago**  
Domekan, ekainak 28, Berriztuk antolatutako artisau azoka egon-

go da, 11:00etatik 14:30era bitartean; herriko sortzaile eta artisauen ekoizpenak ezagutu eta erosi ahal izango dira bertan. 14:00etan, XIV. Jose Ramon Korpion lehiaketa gastronomikoaren txanda izango da; bertan, pil-pi-

lean bakailaorik onena norena den erabakiko dute. Jarraian, Kelmene Abaituak, Araitz Katarainek eta Ander Elorriagak bertso saioan parte hartuko dute, eta, eguna borobiltzeko, Jonkass zornotzarrak kontzertua emango du Elizondo plazan. San Pedro eguna, ekainaren 29a, meza nagusiagaz eta Dantzari Dantzagaz hasiko dute, 12:00etan; 20:00etan ere egongo da aukera dantza horiek ikusteko. Ondoren, Haatik dantza taldearen ikuskizunaz gozatzeko aukera egongo da; 22:00etan izango da hori, eskolako patioan. Uztailaren 1eko protagonistetarikoa bat musika izango da. Izan ere, Sua laukoteak kontzertua joko du txosnagunean; ondoren, DJ Mrazok eta DJ Zelaietsek musika saioak egingo dituzte txosnagunean. Eta Errota taldeak erromeria egingo du Elizondo plazan.

Santa Isabel egunagaz amaituko dituzte jaiak Berrizen. Meza eta Dantzari Dantza egingo dituzte goizean, eta 14:00etan jubilatuentzako bazkaria egongo da. 23:00etan, Lekittoko Deabruak taldeak *Deabruak gara* piroteknia ikuskizuna egingo du jaiak borobiltzeko.

**Estanko Etxebarria**

Iturritza 14, Berriz  
Tel.: 94 682 79 58

**Egun**

OKINDEGIA  
KAFETEGIA  
GOZOTEGIA

Iturritza 21, Berriz  
Tel.: 946 550 902

**Kimu**  
Loraldia eta Opiak

946 824 228  
kimuzabala@hotmail.com

Iturritza, 45  
48240 Berriz (Bizkaia)

**EREÑA**  
ERRETEGIA · JATETXEA

Espezialitatea bildotsa burruntzian.  
Haragia eta arraina txingarretan.

Ereña auzoa, 36  
Tel.: 946 824 033  
48240 Berriz

**Ibaiondo**  
Ferreteria · Burdindegia

**Geriza**  
mantentze-lanak eta instalazioak

SARRAILGINTZA · ATEZAIN AUTOMATIKOAK · BIDEO ZAINZA

**KABA** **HIKVISION** **FERMAX**

ferreteriaibaiondo@gmail.com · Geltoki, 11 BERRIZ · 946 824 489

**Eratu**  
Aholkularitza

AHOLKULARITZA FISKALA, KONTABILITATEA, LANEKOA; KOMUNITATE ADMINISTRAZIOA

Iturritza Kalea, 42, behea - Berriz  
685 708 606 / 688 776 828 / eratuaholkularitza@gmail.com

## "Txosnetako airea balkoira eramaten ahaleginduko naiz, oso instituzionala izan arren"

MIREN AMURIZA PLAZA BERTSOLARI ETA IDAZLEA

**Aritz Maldonado BERRIZ**

Miren Amuriza Plaza berriztarra aurretik ere igotakoa da udaletxeko balkoira San Pedro eta Santa Isabel jaiei hasiera emateko egunean. Baina aurten bera izango da protagonista eta jaiei hasiera emateko arduraduna.

**Zelan jaso duzu pregoilari izateko proposamena?**

Sorpresa handia izan da. Deitu zidatenean, mundu guztiari esan nion ez nuela espero. Urte askoan hainbat talderi proposatu izan zaie ardura hau, eta niri esatea, norbanako legez, ba ez nuen espero. Lehenago ere egonda nago balkoian, bertso eskolako kideekin eta talde feministakoekin, baina oraingoa desberdina izango da. Jai batzordearen aitortza bat da eta eskertzekoa da.

**Orain mikrofona zeuk bakarrik hartzeak ardura handiagoa ematen du?**

Bai, ardura sentitzen dut. Oraindino ez naiz hasi fundamentuz pentsatzen zer esan. Jaiei gonorazko hasiera emateaz gainera, gaur egungo egoera orokorrari buruzko zenbait elementu ere aipatu gura nituzke: gizarte gaiak, gazteen egoera, Palestinako sarraskia... Edukia sartu gura dut, baina ez dut gura ordu erdiko mitin bat izatea.

Orain artean, txosnen bueltan ibili izan naiz beti, jai alternatiboetan, eta txupinazo alternatiboa ere hor dago. Beraz,

**"Azken urteetan ikusi dugu geroago eta gehiago kostatzen dela jaiak antolatzea"**

udaletxeko balkoia oso instituzionala den arren, nire asmoa txosnaguneko eta herri mugimenduko airea ere hara eramatea da. Adi nago ea egun hauetan zer gertatzen den inguruan, eta *collage* moduko bat egiten ahaleginduko naiz.

**Zelan bizi dituzu Berrizko jaiak?**

Gogoratzen naiz, irteten hasi ginenean eta, amak beti egiten zigula broma: "Ipini kanpin denda udaletxe aurrean eta asetebe barru elkar ikusiko dugu". Lagun artean eta giro onean bizi izan ditut jaiak beti. Urte askoan ibili gara hauek antolatzen eta bertan parte hartzen, denon onurarako lan egiten.

Horri lotuta, aipatu gura nuke geroago eta gehiago kostatzen dela herrietako jaiak antolatzea, jendea konprometitzea, eta esango nuke ez dela Berrizko kontua bakarrik. Sintomatikoa da: urte



Miren Amuriza Plaza. MIRIAM CARO

osoan kostatzen zaigu gauzak martxan mantentzea. Hala ere, eta aurten ni lan horietan gutxiago ibili naizen arren, pozik nago beste batzuk ere ikusten ditudalako horretan lanean. Bestalde, zortea dugu udalak ere kultura programazio aberatsa antolatzen duelako urte osoan zehar.

**Badago jaietan galdu ezin duzun hitzordurik?**

Egunik handiena zapatukoa izan da beti, kuadrilla eguna. Beti joan izan gara. Azken urteetan formatu hori apur bat aldatzen ahalegindu gara, kuadrilla kontzeptua batzuetan zurrunezia izan daitekeelako eta jendea kanpoan utzi daitekeelako. Aurten beharbada ez naiz egun osoan zehar hor egongo, baina joango naiz kuku bat egitera.

**EBANISTERIA-CARPINTERIA**  
**ABADIÑO**  
JULIAN DARIO VILCA TOCO  
Eitua Industriegunea · San Fausto eraikina, 50 BERRIZ  
676 111 774 · dariovillca@hotmail.com



**DUÑE ASESORES**  
**Torrealday**

**ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA**

Geltoki kalea, z/g BERRIZ  
94 622 54 26  
berriz@torrealday.es  
www.atctorrealday.com

**EROSKI city contigo**  
Iturriza 39  
BERRIZ  
946 82 48 36



**PROXIM SUPERMERCADOS**  
Iturriza 12  
BERRIZ  
946 82 42 83



**JAIObarnizatuak**

Armainu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A,  
BERRIZ  
658 758 42  
info@jaiobarnizatuak.com  
www.jaiobarnizatuak.com

**VCG**

**VCG decoletaje**  
Vda. de Cándido Gastelunúa, S.A.

Eitua Industrialdea, 20  
48240 Berriz, Bizkaia

946 824 012 info@vcg-decoletaje.com  
946 827 978 www.vcg-decoletaje.com

**CERAMICAS**  
**MACOBER**

**ZERAMIKA ETA GRESA DEKORAZIOA ETA APAINKETA ERAIKUNTZAKO MATERIALA**

1300 m<sup>2</sup> BILTEGI - 800 m<sup>2</sup> ERAKUSKETA *Etan eta ikusi*

Eitua indust., 65 BERRIZ - Tel.: 946 827 890 www.macober.com